DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2025

LANBIDE

- Enplegu zentro berezietan desgaitasuna duten pertsonentzat lan egonkorra sortzeko inbertsiorako laguntzak 3
- Enplegu zentro berezietan desgaitasuna duten pertsonen lanpostuak mantentzeko laguntzak 4
- Enplegu-zentro berezietan lanbide-jardueran laguntzeko unitateentzako dirulaguntzak 5
- ARRAIGO bidezko erregularizazioaren integratzeko prestakuntza proiektu integralak 6
- «Enplegu-proiektu integralak» finantzatzeko laguntzak. Lehentasunezko arretako kolektiboak 8
- Laneratzeko enpresak sortu eta mantentzeko laguntzak 2025-2028 10
- Gizarte-erroldatzeko (gizarte- eta lan-arloko) arraigoaren bidezko erregularizaziorako inklusiorako proiektu integralak 12
- Proiektu bereziak (Gizarteratzea + Prestakuntza) 14
- Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek garatzen dituzten prestakuntza-ekintza estrategikoak egiteko dirulaguntzak 16
- HEZIBI programa – Prestakuntza eta txandakako lana gazteentzat 18
- Lehentasunez langile landunei zuzendutako enplegurako prestakuntza-eskaintza 19
- Emakume langabeen eta gizon langabeen prestakuntza eta kontratazioa eremu maskulinizatu eta feminizatuetan (Morrokotudak) 21
- Kontratazio-konpromisodun prestakuntza 22
- Lehentasunez langabezian dauden langileei zuzendutako prestakuntza-ekintzak 23
- Enplegurako prestakuntzako erakundeentzako berrikuntzako inbertsioa finantzatzeko dirulaguntzak 25
- Kualifikazio txikiko gazteen prestakuntza 26
- Enpresaz gaindiko premien azterketak eta diagnostikoak 28
- Profesionaltasun-ziurtagirien prestakuntza-praktiketarako dirulaguntzak 29

- Lanbide-orientazioko ekintzetarako laguntzak 30
- Langabezian dauden 50 urtetik gorako pertsonak Euskal Autonomia Erkidegoko lantokietan kontratatzeko laguntzak 33
- Enplegu lagunduko jarduketetara bideratutako laguntzak..... 35
- Enplegua sustatzeko tokiko laguntzak..... 38
- Desgaitasuna duten pertsonen enplegua lan-merkatu arruntean sustatzeko laguntzak 40
- Pertsona ekintzaileentzako laguntzak 42
- Toki erakundeek gazteak kontratatzea, 2021-2027 eperako Euskal Autonomia Erkidegoko EGF Plus Programaren esparruan 44
- Ikerlan programa, ikerketa-proiektuak egiteko gazteak kontratatzeko emateko laguntzak..... 46
- LEHEN AUKERA programa. gazte langabeak euskal enpresetan kontratatzeko dirulaguntza 48
- Gizarte Segurantzako kuotak ordaintzeko dirulaguntza, langabezia-prestazioa kobratzen dutenentzat 50
- Txanda-kontratuak 52
- Familia eta lana kontziliatzeko laguntzak 54

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Enplegu zentro berezietan desgaitasuna duten pertsonentzat lan egonkorra sortzeko inbertsiorako laguntzak

2.- Araua

152/2023 Dekretua, urriaren 17koa, zeinaren bidez arautzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasuna duten pertsonen enplegagarritasunarekin loturiko programak eta zerbitzuak eta Enplegu Zentro Berezien Euskal Erregistroa. (2023/10/27ko EHAAn argitaratua, 206 zbkia.)

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Dekretua euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/03/2501065e.shtml
Deialdia euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/03/2501065e.shtml

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Kontabilitate Plan Orokorrak ezarritako kategoria jakin batzuetan aktibo ez korronteetako inbertsioak, betiere, inbertsio egin den enplegu zentro berezian lanpostu egonkorrak sortu badituzte eta desgaitasuna duten pertsonak kontratu mugagabearekin kontratatzea badakarte, edo aldi baterako edo iraupen jakin bateko kontratuak, mugagabe bihurtzea badakarte. Dirulaguntza honen onuradun giza-ekimeneko enplegu-zentro bereziak, alegia, Enplegu-Zentro Berezien Euskal Erregistroan horrela inskribatuta daudenak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2025an aurrekontua 1.000.000 €koa izan zen, eta 1.000.000 € gauzatu zen. 17 enplegu zentro berezik eskatu zuten dirulaguntza hau, 13 zentrori onartu zitzaien eta lau kanpoan gelditu ziren aurrekontua agortu zelako.
116 lanpostu egonkor sortu ziren, horietatik 34 emakumeak eta 82 gizonak.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Enplegu-zentro berezi eskatzaileen kopurua	15	17
Kontratu egonkor kopurua	115	116

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Enplegu zentro berezietan desgaitasuna duten pertsonen lanpostuak mantentzeko laguntzak

2.- Araua

152/2023 Dekretua, urriaren 17koa, zeinaren bidez arautzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasuna duten pertsonen enplegagarritasunarekin loturiko programak eta zerbitzuak eta Enplegu Zentro Berezien Euskal Erregistroa. (2023/10/27ko EHAAn argitaratua, 206 zbkia.)

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Dekretua euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/10/2304905e.shtml

Deialdia euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/11/2405075e.shtml

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Dirulaguntza honen helburua da enplegu-zentro berezietan kontratatu dituzten eta desgaitasuna duten pertsonen soldata-kostuak finantziatzea, kontratu bakoitzaren indarraldian zehar.
Lanaldi osorako eta desgaitasuna duten pertsonen soldata-kostuak estaltzeko dirulaguntza da, indarrean dagoen lanbide arteko gutxieneko soldataren %50 izango da. Lan-merkatuan sartzeko zailtasuna handienak dituzten eta desgaitasuna duten pertsonak kontratatuz gero, dirulaguntza indarrean dagoen LGSren % 55 izango da (%60 emakumea bada edo 45 urtetik gorakoa bada) lanaldi osorako kontratutako langile bakoitzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2025ko ekitaldirako onartutako aurrekontua 71.712.750,00 eurokoa izan zen.
Guztira, 75.385.692,72 euro eman dira 2025erako.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
EAEn indarrean diren enplegu-zentro berezien kopurua:	98	97
Enplegu-zentro berezietan desgaitasuna duten langileen batez besteko plantilla, diruz lagundutako kontratazioa dutenak kontuan hartuta	12.868	12.872

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Enplegu-zentro berezietan lanbide-jardueran laguntzeko unitateentzako dirulaguntzak

2.- Araua

152/2023 Dekretua, urriaren 17koa, zeinaren bidez arautzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasuna duten pertsonen enplegagarritasunarekin loturiko programak eta zerbitzuak eta Enplegu Zentro Berezien Euskal Erregistroa. (2023/10/27ko EHAAn argitaratua, 206 zbkia.)

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Dekretua euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/10/2304905e.shtml Deialdia euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/03/2501064e.shtml

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Enplegu-zentro berezietan gizarteratzen eta laneratzen laguntzeko langileen eta ekoizpenean laguntzeko arduradunen soldata kostuak eta gizarte-segurantzakoak finantziatzea, aldi bateko kontratua zein kontratu mugagabea izan, betiere gutxienez urte osoan kontratatuta egonez gero.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2025ko ekitaldiko aurrekontua 5.500.000 €koa izan zen. 2025an 42 enplegu-zentro berezik jaso zuten dirulaguntza hau, 591 langilek, horietatik 207 gizarteratzen eta laneratzen laguntzeko langileak eta 384 ekoizpenean laguntzeko arduradunak. Desgaitasun duten laneratzeko zailtasuna bereziak dituzten lagundutako langileak, berriz, 5127 izan ziren.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Lanbidek diruz lagunduko duen jarduera profesionala babesteko unitateak	45	42
Lanbidek diruz lagunduko dituen babes-unitateetako erabiltzaileak, desgaitasun handia dutenak:	5100	5127

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

ARRAIGO bidezko erregularizazioaren integratzeko prestakuntza proiektu integralak

2.-Araua erregulatzailea

2024ko apirilaren 24ko Ebazpena, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Zuzendari Nagusiarena, arraigo bidez prestakuntzan eta laneratzean atzerritarrei erraztasuna emateko ibilbide integralak laguntzeko dirulaguntzen deialdia argitaratzeko prozedura (argitaratua EHAA)

3.-Araua, Deialdia eta Ebazpenaren argitalpena (Euskarazko esteka EHAA)

BOPV – euskaraz: https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2024/05/2402111e.pdf
Izapidea – euskaraz: https://www.euskadi.eus/ayuda_subvencion/2024/arraf/web01-tramite/eu/

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdi honen helburua da laguntzak arautzea, Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta dauden eta Espainian bi urtez jarraian bizi izan diren atzerritar herritarren gizarte- eta laneratze ibilbide integralen proiektuak finantzatzeko, haien integrazio sozial eta laboralari laguntzeko, arraigo bidezko prestakuntzaren eta lan-baimenaren lortzea erraztuz eta, horren bidez, kontratazio eraginkorra bideratuz.

Dirulaguntzaren xede izango dira honako jarduera guztiak eta bakoitza bateratzen dituzten proiektuak:

1. FASEA

- Enpresa prospekzioa eta lan-tartekaritza, kontratazio posiblea duten enpresekin harremanetan jartzeko eta haien inplikazioa lortzeko.
- Gizarte- eta laneratzerako ibilbide pertsonalizatuak.
- Prestakuntza ibilbidea.
- Lan-praktika ordainduak, ez-lanak.

2. FASEA

- Lan-kontratazioa.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu-exekuzioa eta gizarte-erabilgarritasuna eta -eragina. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda sartuko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko eta desberdintasunak ezabatzeko, bai eta kolektibo minorizatuen alde egiteko ere, eta ondare naturalaren kontserbazioa sustatzeko helburuz.)

Aurrekontu globalaren zabalkuntza, 3.333.000 eurokoa, 19 proiektu finantzatzeko (ondorengo uko-egite 1).

Proiektuaren lehen fasea, ibilbideei lotutako laguntzen emakida.

1. fasetarako esleitutako aurrekontua: 1.849.224 euro.

Gizarte-erabilgarritasuna eta -eragina:

Prestakuntzarako erroldatzearen figura honek Espainian bizileku-baimena eskuratzea ahalbidetzen die egoera administratibo irregularrean dauden pertsonei, baldin eta prestakuntza-konpromiso eraginkorra betetzen badute. Horren bidez, pertsona horiek lan-merkatuan txertatzea bilatzen da, eta, aldi berean, enpresek bete behar dituzten lanpostuetarako beharrezko prestakuntza duten pertsonak eskuratzea.

6.- Dirulaguntzen Plan Estrategikoko adierazleen emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Proiektu berriak	18	18
Pertsona onuradunen kopurua (prozesua hasten dutenak)	260	237

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

«Enplegu-proiektu integralak» finantzatzeko laguntzak. Lehentasunezko arretako kolektiboak

2.- Araua

EBAZPENA, 2025eko irailaren 23koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren zuzendari nagusiarena, lehentasunezko arretako kolektiboentzako enplegu-proiektu integraletarako laguntzen 2025eko ekitaldirako oinarri arautzaileak eta deialdia argitaratzeko dena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

EBAZPENA, 2025eko irailaren 23koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren zuzendari nagusiarena, lehentasunezko arretako kolektiboentzako enplegu-proiektu integraletarako laguntzen 2025eko ekitaldirako oinarri arautzaileak eta deialdia argitaratzeko dena.
https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/09/2504072e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdi honen helburua da enpleguari laguntzeko ibilbide integral bat eskaintzea, gizarteratzeko eta laneratzeko prozesurik premiatsuenak dituzten biztanleei, bereziki kalte beratasun-egoeran edo gizarte-bazterkeriako arriskuan daudenei, lan-esperientzia bat izateko aukera emango diena, tokiko erakundeekin lankidetzan, prestakuntza-jarduerekin eta laguntza indibidualizatuarekin batera, laneratzea egonkorragoa izan dadin. Ekitatearen eta lurralde-berrorekaren ikuspegitik, deialdi honen xede diren proiektuak gizarte-onurako esparruetan garatu beharko dira, eta bete gabeko gizarte-mailako beharrak asetzera edo arintzera edo kalitate eta interes publikoko produkzio-sinergia iraunkorrak sortzera zuzenduta daude.
Banakako ibilbideak finantzatzea, ekintza hauek konbinatzen dituzten pertsonentzat: lan-orientazioa eta aholkularitza, prestakuntza funtsezko gaitasunetan, zeharkakoetan eta/edo profesionaletan, laneratzea eta enplegua sortzea lanaldi partzialeko aldi baterako lan-kontratuen bidez.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

54 eskaerei heltzeko baliabide ekonomikoak handitu egin ziren. 54 eskaera egin dituzte 30 entitatek.
Hasierako egoera: 2025-2026 deialdia: 7.505.000 €
(2025eko ekitaldiko ordainketa-kreditua: 5.025.000 €eta 2026ko konpromiso-kreditua: 2.480.000 €).
Igoera: 2025-2026 deialdia: 1.495.000 € (2025eko ekitaldiko ordainketa-kreditua: 1.005.000 € eta 2026ko konpromiso-kreditua: 490.000€).
Guztira bideratutako baliabideak: 2025-2026 deialdia: 9.000.000 € (2025eko ekitaldiko ordainketa-kreditua: 6.030.000 €eta 2026ko konpromiso-kreditua: 2.970.000 €).

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Onuradunen kopurua	534	522
Proiektuen kopurua	54	53

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Laneratzeko enpresak sortu eta mantentzeko laguntzak 2025-2028

2.- Araua

AGINDUA, 2009ko maiatzaren 4koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarena, laneratzeko enpresak sortu eta mantentzeko laguntzak arautzen dituena.
162/2023 DEKRETUA, urriaren 31koa, zeinaren bidez laneratzeko enpresen kalifikazioa arautzen baita, eta enpresa horietan sartzeko prozedura eta haien erregistroa ezartzen baitira.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2009ko maiatzaren 4koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarena, laneratzeko enpresak sortu eta mantentzeko laguntzak arautzen dituena.
https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2009/05/0903002a.pdf
EBAZPENA, 2025eko otsailaren 28koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitara ematen baita 2025eko aldirako dirulaguntzen deialdia, Euskal Autonomia Erkidegoko kualifikazio apaleko gazte langabeen aktibazio soziolaboralerako prestakuntza-ekintzak egitea helburu duena.
https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2025/03/2501063e.pdf
EBAZPENA, 2026ko martxoaren 10ekoa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoko Administrazioaren eta Zerbitzu Orokorren zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratzen baita laneratzeko enpresak sortzeko eta mantentzeko laguntzak arautzen dituen Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2009ko maiatzaren 4ko Aginduan aurreikusitako laguntzen 2025eko erakunde onuradunen zerrenda.
https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2026/03/2601195e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza-programa honen helburua da gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonen gizarteratzea eta laneratzea sustatzea, laneratze-enpresen bidez.
Laneratze-enpresetan egiten duten lanaren bitartez, langileak lan-merkatu arruntean integratzea da helburua. Horretarako, laneratze-enpresa kontratatzaileak prestakuntza eta orientazioa jasotzeko aukera emango die langileei, laneratzen ari den pertsona bakoitzak sinatutako ibilbide pertsonalizatu bakoitzean ezartzen diren ekintzen eta neurrien bidez. Kontua da aukera-berdintasunean aurrera egitea, adina, sexua, jatorria, gaitasuna edo bestelakoak edozein direla ere, eta enplegua lortzeko zailtasunak dituzten pertsonen gizarteratzea eta laneratzea bultzatzea, bazterkeriaren arriskua eta kronifikazioa saihestuz.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Laguntza-lerro guztiak zuzkitzeko, 2025eko ekitaldiko hasierako aurrekontua 17.800.000 eurokoa izan zen eta aurrekontu guztiaren % 92,24 gauzatu da.

Guztira 16.418.830,97 euro eman ziren:

- 12.534.291,54 euro laneratzeko postuak sortu eta mantentzeko,
- 2.877.881,70 euro ekoizpen- eta laneratze-teknikarien lanpostuetarako,
- 800.000,00 euro aktibo finkoetarako eta
- 206.657,73 euro laguntza teknikorako eta prestakuntzarako.

Laneratzeko lanpostuetarako dirulaguntzaren zenbatekoa % 5 handituko da lanpostua betetzen duen pertsona emakumea bada.

Ez da laneratze-enpresa bat sortzeko laguntzarik eman, egin diren bi eskaeretatik, batek ez ditu betekizunak betetzen eta besteak uko egin dio laguntzari. Eta 38 enpresari mantentzeko laguntzak eman zaizkie. 341 laneratze-lanpostu eskatu dira (185 emakume eta 156 gizon), eta 152 ekoizpen- eta laneratze-teknikarien lanpostu (85 emakume eta 67 gizon).

Gaur egun indarrean dauden 3 deialdiak kontuan hartzen baditugu (2023, 2024 eta 2025 ekitaldiak), diruz lagundutako guztizko kopurua hau da enpresa guztiak barne hartuta: 942 laneratze-lanpostu eta 173 laguntza-teknikari.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Abian dauden laneratze-enpresak.	45	43
Laneratze-enpresetan kontratatutako eta bazterketa-arriskuan dauden langileen batez besteko plantilla, Lanbidek diruz lagunduko duena.	755	942
Laneratze-enpresetan kontratatzen diren laguntza-teknikariak.	150	173
Inbertsioak.	15	17

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Gizarte-erroldatzeko (gizarte- eta lan-arloko) arraigoaren bidezko erregularizaziorako inklusiorako proiektu integralak

2.- Araua

2025eko apirilaren 10eko Ebazpena, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, gizarte-erroldatzeagatik (gizarte- eta lan-arloak) bizileku- eta lan-baimenak lortzearen bidez migratzaileak gizarteratzeko ibilbide integralak egiteko proiektuetarako dirulaguntzen deialdia argitaratzeko.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Deialdia: https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2025/04/2501767e.pdf

Aldaketa:https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2026/01/2600274e.pdf

1. fasea:https://www.euskadi.eus/ayuda_subvencion/2025/arras_presus_i/web01-tramite/eu/

2. fasea:https://www.euskadi.eus/ayuda_subvencion/2025/arras_presus_c/web01-tramite/eu/

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdi honen xedea da Euskadiko Autonomia Erkidegoan erroldatutako atzerritarren gizarte- eta lan-inklusiorako ibilbide integralak laguntzeko proiektuen finantzaketarako laguntzak arautzea, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen dutenen gizarte- eta lan-inklusioa erraztuz, salbuespenezko egoerengatik aldi baterako bizileku-baimena lortzea ahalbidetuz, gizarte-erroldatzeagatik (gizarte- eta lan-arloak), eta, horrekin batera, benetako kontratazioa ahalbidetuz.

Honako proiektu-motak diruz lagundu daitezke:

-1. Motako Proiektua : Lanpostuan prestakuntza-programa, laguntza eta tutoretza, ingurune produktiboan gaitasun profesionalak eskuratzeko; horretan administrazio-erregulazioa errazteko laguntza teknikoa barne hartzen da, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten etorkinentzat, eta lan-kontratuarekin amaitu behar du, salbuespenezko egoerengatik bizileku- eta lan-baimena eskuratzeko aukera emanez, gizarte-erroldatzeagatik (gizarte- eta lan-arloak).

-2. Motako Proiektua : Gizarte- eta lan-inklusiorako ibilbide pertsonalizatuak egiteko proiektua, laguntza eta tutoretza bidez, enpresaren eta hautagaien arteko topaguneetan jarduerak garatuz, bi aldeek lan-inklusiorako plan pertsonala diseinatu eta konpromisoak hartzen dituzten bitartean, parte-hartzailearen lan-kontratazioari buruzko administrazio-prozesuaren ebazpenaren zain.

Proiektuak osatzen dituzten diruz lagundu daitezkeen jarduerak:

-Enpresa-aurkikuntza eta lan-tartekaritza, kontrataziorako enpresak identifikatu eta inplikatzeko.

-Prestakuntza-programa eta administrazio-tramiteetan laguntza, bizileku- eta lan-baimena eskuratzeko.

-Gizarte- eta lan-inklusiorako ibilbide pertsonalizatuak.

-Lan-kontratazioa.

Ibilbide horiek hiru fase dituzte, eta honako jarduera hauek barne hartzen dituzte:

1. Fasea: Kontratazio-konpromisoaren aurreko fasea
2. Fasea: Kontratazio-konpromisoaren ondorengo plan pertsonal eta integrala jarraitzea
3. Fasea: Laneratze ondorengo laguntza tekniko eta juridikoa.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Proiektuak gauzatzeko exekutatutako aurrekontua: 658.430,00 €, 1.743.000,00 €-tik; hau da, %37 exekutatu da.

Erakundeen espezializazio-beharraren ondorioz, aurkeztutako eskabideen kopurua aurreikusitakoa baino txikiagoa izan da.

Parte-hartzaile guztientzako kontratuetako dirulaguntzak gauzatzeko aurreikusitako aurrekontua: 1.218.750 €, 1.907.380 €-ren aurrean; hau da, %63.

Gizarte-erabilgarritasuna eta -eragina: Erroldatze soziolaboralaren figurak Espainian lan- eta bizileku-baimena eskuratzea ahalbidetzen die egoera administratibo irregularrean dauden pertsonei, baldin eta kontratazio-konpromiso eraginkorra badago. Horren bidez, pertsona horiek lan-merkatuan txertatzea bilatzen da, aldi berean enpresek bete behar dituzten lanpostuetarako beharrezkoa den prestakuntza duten langileak eskuratuz.

Aurreikusitakoa baino proiektu gutxiago gauzatu diren arren, programa eraginkorra dela jotzen da, lan-merkatura sartzeko pertsonalizatua, integrala eta egokia delako, lan-baimenik ez duten pertsonentzat erroldatze soziolaboralaren figuraren bidez.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Proiektu kopurua	20	10
Pertsona onuradunen kopurua (prozesua hasten dutenak)	260	126

1.- Dirulaguntza programaren izenburua

Proiektu bereziak (Gizarteratzea + Prestakuntza)

2.- Araua

EBAZPENA, 2025eko apirilaren 10ekoa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitara ematen baita 2025eko dirulaguntza-deialdia langile landunei eta lana lortzeko edo hari eusteko zailtasunak dituzten langabeei zuzendutako laneratzeko eta berrikuntza soziolaboralerako proiektu bereziak garatzeko.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/04/2501769e.pdf

4.- Dirulaguntza programaren deskribapen laburra eta helburuak

Langabeak gizarteratzeko eta laneratzeko eta landunen enplegagarritasuna hobetzeko jarduera integralak, beste erakunde publiko edo pribatu batzuekin lankidetzan.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Lortutako emaitzak

Gizarteratzeko eta laneratzeko proiektu berezietan 2.994 pertsonari ematen zaie arreta, eta 7.136 pertsonak parte hartzen dute prestakuntza-ekintzetan.

Aurrekontua gauzatzea

Gauzatutako aurrekontua: 7.996.030 €

Erabilgarritasun eta inpaktu soziala:

Deialdi honen babesean diruz lagundutako jardueren bidez, aukera ematen zaie Euskal Autonomia Erkidegoko langabeei eta landunei, gizarteratzeko edo laneratzeko zailtasun handienak dituztenei, prestakuntza egokia eta lan-merkatuan sartzea bermatuko duten lan-aktibazioko ekintzak izan ditzaten. Nabarmendu behar da dirulaguntzen ildo hori enplegurako programa integrala dela, eta helburua dela udalak eta toki-erakundeak inplikatzea, bai eta beste erakunde batzuk ere, proiektuari aurrekontu osoaren % 10eko ekarpena eginez, gutxienez, ahaleginak koordinatzeko eta helburuak lortzen direla ziurtatzeko. Proiektu bereziek prestakuntza-ekintzak, orientazio-ekintzak, enplegua edo horietan parte hartzen duten pertsonen enplegagarritasuna nabarmen hobetuko duen beste edozein neurri konbinatzen dituzte. Proiektu berezien ekintzak laneratzeko edo enpleguari eusteko zailtasunak dituzten kolektiboei zuzenduta daude.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspen	Emaitza
Proiektuetan artatutako pertsonen kopurua	2.600	2.994
Prestakuntza-ekintzetako parte-hartzaileen kopurua	8.500	7.136

1.- Dirulaguntza programaren izenburua

Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek garatzen dituzten prestakuntza-ekintza estrategikoak egiteko dirulaguntzak

2.- Araua

EBAZPENA, 2025eko urriaren 27koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek garatzen dituzten prestakuntza-ekintza estrategikoak egiteko laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia 2025eko ekitaldirako.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/11/2504647e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek programatutako prestakuntza-ekintzak (prestakuntzako ekintza estrategikoak) garatzeko laguntza ekonomikoak, langileen gaitasunak eta kualifikazioak hobetzeko.

Enpresatzat hartzen da jarduera ekonomiko bat egiten duen edozein erakunde, edozein dela ere haren izaera juridikoa eta finantzatzeko modua.

Ekintza estrategikoak dira enpresaren proiektuarekin zuzenean lotuta daudenak eta beharren diagnostiko batean edo antzeko dokumentu batean oinarritu daitezkeenak, aurkeztutako ekintzen lehentasuna eta xede diren langileak adierazten dituena.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Lortutako emaitzak

Prestakuntza jaso duten pertsonen kopurua: 10.698

Aurrekontua gauzatzea

4.844.947 €

Erabilgarritasun eta inpaktu soziala:

Enpresentzako ekintza estrategikoek dirulaguntzak eskatzen dituzten enpresetan lan egiten duten pertsonen prestakuntzan eragitea lortzen dute, eta, beraz, ematen den prestakuntzaren helburua enpresak identifikatutako prestakuntza-helburuak lortzea da. Langileak prestakuntza bat jasotzen du bere lana hobeto garatzeko eta eguneratze-prozesuan eta produkzio-bilakaeran enpresak egin behar dituen aldaketa teknologikoetara eta prozesu-aldaketetara egokitzeko.

30/2015 Legean ezarritako enpresek programatutako prestakuntza-ekimenaren deialdi osagarria da. Prestakuntza-kredituaren bidez garatzen da, eta, erabili ondoren, Gizarte Segurantzako kotizazioen bidez hobariak ematen dira. Enpresek urteko prestakuntza-kreditua agortu ondoren eskuratzen dute dirulaguntza hori.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikusia	Emaitza
Parte-hartzaileak	12.000	10.698
Enpresa parte-hartzailea	225	166

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

HEZIBI programa – Prestakuntza eta txandakako lana gazteentzat

2.- Araua

EBAZPENA, 2025eko maiatzaren 19koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez esleitzen baitira Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren eta Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2012ko urriaren 3ko Agindu bateratuan aurreikusitako laguntzak 2025. urtean finantzatzeko baliabide ekonomikoak. Agindu horren bidez ezartzen dira gazteek prestakuntza lanarekin txandakatzeko Hezibi Programaren oinarri arautzaileak.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/05/2502282e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen artean enpleguarekin txandakatutako prestakuntza sustatzeko dirulaguntza, hau da, prestakuntza duala, LHko zikloetako ikasleekin eta profesionaltasun-ziurtagiria duten langabeekin txandakako prestakuntzarako kontratu bat formalizatuz.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Lortutako emaitzak

1.007 ikaslek parte hartu dute ikas-ekinezko prestakuntzan, diruz lagundutako Hezibi proiektuarekin..

Aurrekontua gauzatzea. 1.820.832 €

Erabilgarritasun eta inpaktu soziala:

Prestakuntza dualak eragin zuzena du LHko titulu bat edo profesionaltasun-ziurtagiri bat ikasten ari diren gazteen enplegagarritasunean; izan ere, txandakako prestakuntza-kontratu baten bidez kontratatzen dira, eta abantaila guztiak dituzte, bai enpresarentzat, bai langileentzat.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikusia	Emaitza
Diruz lagundutako kontratuen kopurua	900	1.007

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Lehentasunez langile landunei zuzendutako enplegurako prestakuntza-eskaintza

2.- Araua

EBAZPENA, 2025eko irailaren 5ekoa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren zuzendari nagusiarena. Horren bidez, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren Administrazio Kontseiluaren erabaki bat argitaratzen da, lehentasunez Euskal Autonomia Erkidegoko langile landunei zuzendutako 2025-2027 aldirako prestakuntza-eskaintza finantzatzeko laguntzen oinarri arautzaileak onartzen dituena eta 2025eko ekitaldirako deialdia egiten duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/09/2503959e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Enplegurako lanbide-heziketaren sistemaren eskaintzako prestakuntza-ekimena. Horren helburua da, lehentasunez, langile landunei prestakuntza-ekintzak eskaintzea, egungo lana garatzeko gaitasunak hobetzera eta langileak maila indibidualean birkualifikatzera bideratuta daudenak. Halaber, langabezian dauden eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaile gisa izena emanda dauden langileek ere parte hartu ahal izango dute, gehienez ere plan osoaren % 30era arte. Ekimen honek biztanleria aktiboaren bizialdi osoko enplegagarritasuna eta prestakuntza hobetzen laguntzen du, baita enpresen produktibitatea eta lehiakortasuna hobetzen ere.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Lortutako emaitzak

Prestakuntza jaso duten pertsonen kopurua:34.842

Aurrekontua gauzatzea

13.632.823 €

Erabilgarritasun eta inpaktu soziala:

Lehentasunez landunei zuzendutako eskaintza-prestakuntza da langileen prestakuntzan eragin handiena duen lanbide-heziketako sistemaren ekimenetako bat, eta langabeei ere ematen die prestakuntza horretan parte hartzeko aukera. Prestakuntzak pertsonen gaitasunak hobetzen laguntzen du, bai kualifikatzaileak bai zeharkakoak, eta prestakuntza egiaztagarria ere azpimarratzen du, profesionaltasun-ziurtagiri bat lortze aldera. Inpaktu soziala garrantzitsua da, langileen eta langabeen prestakuntza-espektatibak betetzen dituelako eta lanpostua garatzeko behar diren konpetentzia profesionalak hobetzea lortzen duelako.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikusia	Emaitza
Ekintza sektorialak Parte-hartzaile kopurua	26.000	24.421
Zeharkako ekintzak Parte-hartzaile kopurua	9.000	7.543
Prestakuntza-ekintzak eta errekonozimendu profesionala	6.000	2.877

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Emakume langabeen eta gizon langabeen prestakuntza eta kontratazioa eremu maskulinizatu eta feminizatuetan (Morrokotudak)

2.- Araua

EBAZPENA, 2025eko maiatzaren 19koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitara ematen baita 2025eko dirulaguntza-deialdia, eremu maskulinizatuetako eta feminizatuetako emakume eta gizon langabeen prestakuntza eta kontrataziorako (Morrokotudak).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/05/2502280e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Eremu maskulinizatu eta feminizatuetan (Morrokotudak) emakume eta gizon langabeei zuzendutako prestakuntza-ekintzak finantzatzeko laguntzak, bai eta hitzartutako lan-kontratuengatiko laguntzak ere.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Lortutako emaitzak: Prestakuntza- eta enplegu-ekintza horietan 91 pertsonak hartzen dute parte, eta 45 pertsona kontratatzeko konpromisoa hartu dute.

Aurrekontua gauzatzea : 345.283 €

Erabilgarritasun eta inpaktu soziala: Emakume eta gizon langabeen prestakuntza eta kontratazioa, eremu maskulinizatu eta feminizatuetan, ekintza positiboko neurriak dira, egituretan aldaketak sustatzera bideratuak. Aldaketa horiek, gaur egun, zaildu egiten dute emakumeak lan-jarduerako sektoreetan sartzea, bertan irautea eta mailaz igotzea, sektore horietan ordezkaritza txikia baitute gizonek.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikusia	Emaitza
Parte-hartzaileen kopurua	80	91
Hitzartutako kontratuen kopurua	40	45

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Kontratazio-konpromisodun prestakuntza

2.- Araua

EBAZPENA, 2025eko maiatzaren 19koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitara ematen baita kontratazio-konpromisodun prestakuntzarako 2025eko dirulaguntza-deialdia.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/05/2502279e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Oro har langabetuak kontratatzeko konpromisoa duten prestakuntza-ekintzak finantzatzeko laguntzak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Lortutako emaitzak

Parte-hartzaileak 454 dira.

Aurrekontua gauzatzea

1.475.568 €

Erabilgarritasun eta inpaktu sozial:

Kontratatzeko konpromisoa duen lanbide-heziketako programaren helburua da prestakuntza espezializatua eta egokia eskaintzea gure lurraldean ezarritako edo ezarri berri diren enpresek sortutako lanpostu berriei, kontuan hartuta prestakuntza-ekintzen helburu nagusia dela langabezian dauden langileak laneratzea edo laneratzea produkzio-sistemak eskatzen dituen enpleguetan.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikusia	Emaitza
Parte-hartzaileen kopurua	600	454
Hitzartutako kontratuen kopurua	300	229

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Lehentasunez langabezian dauden langileei zuzendutako prestakuntza-ekintzak

2.- Araua

EBAZPENA, 2025eko irailaren 5ekoa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren zuzendari nagusiarena. Horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko langabeei lehentasunez zuzendutako 2025-2027 urteetarako prestakuntza-eskaintza finantzatzeko laguntzen oinarri arautzaileak onartzen dira eta 2025eko ekitaldirako deialdia egiten da.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/09/2503960e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Enplegurako lanbide-heziketa da enplegu-zerbitzu publikoek beren zerbitzu-zorroan langileei eskaintzen dieten tresna nagusietako bat, eta modu erabakigarrian laguntzen die lan-merkatuan sartzen edo enplegagarritasuna hobetzen. Prestakuntza-ekintza horien bidez, ikasleek beren konpetentzia profesionalak eta pertsonalak eskuratzea, hobetzea edo eguneratzea lortzen dute, eta lanpostuan esperientzia lortzen dute lanekoa ez den praktika bat eginez, hala badagokio. Praktika horrek enpresetan jasota uzten du pertsonak prestakuntza jaso duen profil profesionaletan lan egiteko aukerak dituela.
Testuinguru horretan, deialdi honetan finantzatu beharreko prestakuntza-ekintzen bidez, langabeek, lehentasunez, prestakuntza-eskaintza zabala izatea ahalbidetzen da.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Lortutako emaitzak

2025an amaitutako prestakuntza-ekintzetan 17.966 pertsonak hartu dute parte.

Aurrekontua gauzatzea

35.358.953 €

Erabilgarritasun eta inpaktu soziala:

Batez ere langabeei zuzendutako enplegurako lanbide-heziketak lagundu egiten du lanik ez duten pertsonak euskal lan-merkatuak eskatutako lan-lanbideetan trebatzen, 1., 2. eta 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriak eta espezializazioko prestakuntza-espezialitateak emanez. Era berean, deialdi honetako prestakuntza-programazioan arreta berezia jartzen da gizarteratzeko eta laneratzeko zailtasunak dituzten pertsonei prestakuntza emateko, bai eta profesionaltasun-ziurtagiri bat egin eta

gainditu ahal izateko funtsezko gaitasunetan beharrezko prestakuntza emateko ere. Zeharkako gaitasunei buruzko prestakuntza-eskaintza zabala ere badago.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurrekontua	Emaitza
A-B-C graduko profesionaltasun-ziurtagiriei lotutako prestakuntza egiaztagarria. Parte-hartzaileen kopurua 16.500 2025-2027an. 3.915 2025ean	3.915	8.208
Prestakuntza ez egiaztagarria. Parte-hartzaileen kopurua: 15.200 2025-2027an. 3.607 2025ean	3.607	9.758

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Enplegurako prestakuntzako erakundeentzako berrikuntzako inbertsioa finantzatzeko dirulaguntzak

2.- Araua

EBAZPENA, 2025eko ekainaren 4koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baita Euskal Autonomia Erkidegoan enplegurako prestakuntzako entitateek berrikuntzaren arloan egiten duten inbertsioa finantzatzeko dirulaguntzen 2025eko deialdia.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/06/2502665e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdiaren xedea da azpiegitura berritzaileen zuzkiduretan egindako inbertsioa finantzatzea, Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako instalazioetan, prestakuntza-ekintzak kalitate-, eguneratze- eta eraginkortasun-bermeekin emateko aukera emango dutenak, enpresen errealitate teknologikora eta gaur egun lan egiten duten ekoizpen-baliabideetara egokituta, Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuak diruz lagundutako prestakuntzak merkatuaren benetako premiei erantzun diezaien, eta, horrela, enpresen lehiakortasuna eta langileen laneratzea bultzatuko dira.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Lortutako emaitzak

75 inbertsio-eskaera onartu zaizkie enplegurako prestakuntzako erakundeei.

Aurrekontua gauzatzea

1.441.734 €. 7. KAPITULUA

Erabilgarritasun eta inpaktu soziala:

Emandako dirulaguntzen bidez, prestakuntza-jarduerak eman daitezke, zuzkidura eta ekipamendu eguneratuekin eta berritzaileekin.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikusia	Emaitza
Berrikuntza kopurua	100	75

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Kualifikazio txikiko gazteen prestakuntza

2.- Araua

EBAZPENA, 2025eko ekainaren 13koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitara ematen baita 2025-2027 aldirako oinarri arautzaileak eta dirulaguntza-deialdi bat, helburu hau duena: Euskal Autonomia Erkidegoko kualifikazio apaleko gazte langabeen aktibazio soziolaboralerako prestakuntza-ekintzak egitea.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/06/2502868e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Oinarrizko gaitasunak, gaitasun sozio-pertsonalak (soft skills) eta oinarrizko mailako gaitasun tekniko-profesionalak konbinatzen dituzten prestakuntza-ibilbideak sortzen dituzten prestakuntza-proiektuak finantzatzeko laguntzak, gazte hartzaileen garapen pertsonala eta gizarteratze sozioprofesionala errazteko eta 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriak eskuratzeko. Azken helburua da, ondoren, 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiri bat egin eta gainditu ahal izatea eskaintzaren deialdi arrunt batean, eta gaituta egongo litzatekeen lan-okupazio batean lan egitea edo LHko prestakuntza-ibilbide bat jarraitzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Lortutako emaitzak

Kualifikazio txikiko gazteentzat garatutako ibilbideetan 646 pertsona prestatu dira, eta ibilbideak osatzen dituzten prestakuntza-ekintzetan 2.596 pertsonak hartu dute parte guztira.

Aurrekontua gauzatzea

1.529.640 €

Erabilgarritasun eta inpaktu soziala:

Programa honek eskola uzten duten eta adinagatik hasierako lanbide-heziketara berriro lotu ezin diren gazteen arreta gabeko premia bat asetzen du, bai eta inoren kargura ez dauden eta gaztelania, gizarte- eta kultura-trebetasunak eta gure ingurunean laneratzea eta gizarteratzea eskain diezaieketen lan-lanbideetan profesionalki trebatzea behar duten gazte etorkin adingabeena ere.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikusia	Emaitza
Parte-hartzaileen kop.	200	646

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Enpresaz gaindiko premien azterketak eta diagnostikoak

2.- Araua

EBAZPENA, 2024ko abenduaren 19koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baita Euskal Autonomia Erkidegoan sektoreko prestakuntza-beharrak analizatu eta detektatzeko azterlanak egiteko 2025. ekitaldiko dirulaguntzen deialdia.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/12/2405964e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa eta lantokietarako eta bertan lan egiten duten langileentzako enpresaz gaindiko prestakuntza-beharrak aztertzeko eta antzemateko azterlanak finantzatzeko laguntzak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Lortutako emaitzak

15 azterlan

Aurrekontua gauzatzea

329.820 €

Erabilgarritasun eta inpaktu soziala:

Enpresaz gaindiko prestakuntza-beharrak hautematea.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurrekontua	Emaitza
Ikasketa kopurua	20	15

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Profesionaltasun-ziurtagirien prestakuntza-praktiketarako dirulaguntzak

2.- Araua

EBAZPENA, 2025eko otsailaren 28koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, argitara emateko Lanbidek profesionaltasun-ziurtagiriak lortzeko finantzatu edo baimentzen duen prestakuntzari lotutako prestakuntza-praktikak egiteko 2025eko ekitaldiko dirulaguntzen deialdia.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/03/2501062e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak finantzatutako edo berak finantzatutako profesionaltasun-ziurtagiriak lortzeko prestakuntza-ekintzetako ikasleek prestakuntza-praktikak egitearen ondoriozko gastuak finantzatzeko laguntzak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

- **Lortutako emaitzak** 3.370 laguntza eman dira kotizazioetarako, eta 755 praktiketako tutoretzarako.

Aurrekontua gauzatzea

249.794 €

Erabilgarritasun eta inpaktu soziala:

Lanekoak ez diren nahitaezko praktikak egiten laguntzea, profesionaltasun-ziurtagiri bat lortu ahal izateko, praktikak egitearen ondoriozko gastuen dirulaguntzaren bidez.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikusia	Emaitza
